# URTE OSOKO ARDURA

Testua eta irudiak: LEO LIONNI

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorra. 14 x 30 cm. 32 or. 16 €

**Urte osoko ardura** (euskara)
ISBN 978-84-9172-415-5. Album irudidunak. Gaur egungo klasikoak.

**Un año entero** (castellano)
ISBN 978-84-1343-357-8. Álbum ilustrado. Clásicos contemporáneos.

**Un ano enteiro** (galego)
ISBN 978-84-1343-356-1. Álbum ilustrado. Tras os montes.

**Un any molt enfeinat** (català)
ISBN 978-84-10387-07-2. Àlbum il·lustrat. Clàssics contemporanis.

**Um ano atarefado** (português)
ISBN 978-989-749-194-8. Álbum ilustrado. Clássicos contemporâneos.

*Urtarrilaren lehena zen, eta bikiek elurretan zebiltzan lehen aldia zuten.*
*–Begira –esan zuen Ederrek–, elurrezko sagu bat!*
*–Erratz bat dauka besoan! –esan zuen Edurrek. Orduan ahots bat entzun zuten:*
*–Ni ez naiz erratz bat. Ni Zurtxo arbola naiz! Bikiak sinetsi ezinik zeuden. Hitz egiten zekien zuhaitz bat!*

**Bi sagutxo eta zuhaitz baten arteko adiskidetasuna, urteko hilabeteetan zehar, urtaroetan eta eguraldiak jasaten dituen aldaketetan zehar.**

Urtarrilaren lehenean, Edur eta Eder sagutxoek lagun berri bat egin dute: Zurtxo arbola hiztuna. Hasierako harridura gaindituta, urte osoan zehar bisitan joatea erabaki dute. Hilak aurrera joan ahala, Eder eta Edur ohartzen dira Zurtxok nola xurgatzen dituen euria eta elurraren ura, nola loratzen den udaberrian, fruituak ematen dituen udan edo hostoak galtzen udazkenean. Gabonak iritsita, Edur, Eder eta Zurtxo elkarren arteko adiskidetasun handia ospatu, eta hurrengo aldi berrian ere urte osoko ardura hartzeko prestatzen dira.

Historian zehar agertokia aldatu ez den arren, Leo Lionnik berritu egiten du orrialde bakoitzean, eguraldiaren fenomenoak erakutsiz (elurra, euria eta haizea, eguzkia, hodei mota desberdinak...), denboraren eta eboluzioaren (kimuak, loreak, fruituak...) berezkoak, zuhaitzaren izenak esanahi etimologikora egiten baitu.

Bere estilo bereizgarriarekin, koloreen eta testuren aberastasunagatik nabarmentzen diren collageekin, egileak bere «Frederick», «Matiasen ametsa», «Alex eta sagu mekanikoa», «Zenbakiak» eta «Koloreak» liburuetako pertsonaia atseginak gogorarazten dizkigu.








■ **Gaiak:** urtaroak, urteko hilabeteak. Naturan bizitzea.
■ **Adin egokia:** 3urtetik aurrera.
■ **Nabarmentzeko modukoak:** haur literaturaren klasikoa, landareen zikloa, ingurumena zaintzea. Adiskidetasuna, elkar estimatzea, lankidetza, collage; «Entre mundos. Una autobiografía» egilea «Arrainak arrain», «Kolore baten jabe», «Kornelio», «Frederick», «Munduko etxerik handiena», «Ararik arra», «Urdin Txiki eta Hori Txiki», «Matiasen ametsa», «Alex eta sagu mekanikoak», «Igeritz», «Colores» y «Números».
■ **Kalandraka TVan:** https://kalandraka.tv/videos/leo-lionni_entre-mundos/
■ **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/urte-osoko-ardura-eus

## Leo Lionni

(Amsterdam, Holanda, 1910 - Toscana, Italia, 1999)

Leo Lionni arte-giroan hazi zen –haren ama operakantaria izan zen; osaba Piet, berriz, margolaritza-zale handia– eta oso gaztetatik jakin zuen huraxe izango zela bere zoria. Jaso zuen formakuntza, aldiz, ez zen artistikoa izan, Ekonomian doktoratu baitzen. 1931n Milanen bizitzen hasi zen eta lehen harremanak izan zituen diseinu grafikoarekin. 1939an Ameriketara joan zenean, Filadelfiako publizitate-agentzia batean, Olivetti korporazioan eta Fortune aldizkarian lan egin zuen. Artista mailako ospea ere lortu zuen eta bere margolanak galeriarik onenetan erakusten hasi ziren, Estatu Batuetatik Japoniaraino. Lionni-k berak noizbait esan zuenez, "Nolabait, nonbait, arteak haurtzaroko sentimenak adierazten ditu beti". Haurrentzat idatzi zuen lehen liburua ia ustekabean sortu zen 1959an: tren-bidaia batean, zetazko paper zatiz egindako istorio baten bidez bilobak entretenitzea otu zitzaion. Halaxe sortu zen "Urdin Txiki eta Hori Txiki", eta haren atzetik mundu osoko adituek txalotutako 40 obra baino gehiago. Eskultore, diseinatzaile, margolari eta ilustratzaile gisa egindako merituengatik Arte Grafikoen Amerikar Institutuaren Urrezko Domina jaso zuen 1984an.
https://www.leolionni.com/

www.kalandraka.com www.Pamiela.com
comunicacion@kalandraka.com soltxate@pamiela.com